

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2013ko urtarrilaren 29a. IX. urtea. 2.472. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Zizurkilgo Huyck Wangner lantegiko langileek greba mugagabea hasi dute

Xerium multinazionalaren barruan dago 'Perot' izenez ezagunagoa den Zizurkilgo enpresa; hilaren 21ean jakin zuten 81etik 75 langile kaleratuz, itxi egin nahi dutela

Larunbatean, Tolosako Trianguloa plazatik abiatuta manifestazioa egingo dute, 12:00etan; bizitzaren ari diren egoera «lotsagarria» salatu nahi dute langileek **3**

Pello Odriozolaren askatasuna aldarrikatu dute

Atzo bete ziren 25 urte Pello Odriozola tolosarra espetxeratu zutela, eta ehunka pertsonak parte hartu dute manifestazioan **2**

Balkoietan ikurrinak zintzilikatzeko eskatu dute

Tolosako hainbat herritarrek inauterietatik hasita ikurrinak jartzeko deia egin dute **2**

Eskualdeko hiru triatloilarik domina lortu dute Espainiako Txapelketan **7**

Otaegi eta Otaño sendo dabilta Urrezko Aizkolarien lehiaketan **7**



JONE MONARRIZ

→ **Jon Irazurentzat garaipena.** Igandean jokatu zuen Jon Irazu zizurkil-darrak bere lehen apustua Xabier Zalduaren aurka. 12.000 euro jokoan jarrita, hamalau-na pago enbor moztu behar izan zituzten bi aizkolariak, Tolosako zezen plazan. Urditasuna albo batera utzi, eta lan bikaina egin zuen zizurkildarrak apustua bereganatuz. **6**

ONGI ETORRI IKASTOLARA



Matrikulazio epea:
Urtarrilaren 28tik
Otsailaren 8ra

Aneetako Herri Ikastola
943 65 29 32
www.aneetakoherrriikastola.net



Irurako Ikastola
943 69 43 74
www.irurakolikastola.net



Jesusen Bihotza Ikastola
(Villabona/Zizurkil)
943 69 23 21
www.jesusenbihotzaikastola.com



Laskorain Ikastola
(Tolosa)
943 69 71 22
www.laskorainikastola.net



Tolosako Inmakulada
Ikastola
943 67 36 29
www.inmakuladatolosa.com



Uzturpe Ikastola
(Oñena)
943 67 12 99
www.uzturpe.net

TOLOSALDEKO IKASTOLAK

Pello Odriozola «bahiturik» dagoela salatu dute tolosarrek

Atzo bete ziren, 25 urte, espetxeratu zutenetik; Parot Doktrina dela eta, 10 urtez luzatu zioten zigorra 2007an

Itzea Urkizu Tolosa

«Bizi arteko zigorrrik ez, Pello herrira» lelopean, manifestazio baten bitartez ekarri dute gogora, hainbat tolosarrek, Pello Odriozola kartzela sartu zuteneko eguna. Atzo bete ziren 25 urte, eta besteak beste, «duela 5 urte, legez, kaleran egon beharko zukeela» salatu dute mobilizazioan: «Pello bahituta dago».

2007an zigorra bete zuen arren, Parot Doktrina legea aplikatuta, beste 10 urtez luzatu zioten zigorra, Pello Odriozola tolosarrari. Orduz geroztik, hamaika aldarrikapen, protesta eta mobilizazio

burutu dituzte bere senide, lagun eta gertukoek; azken asteotan, ordea, Odriozolaren espetxeratzearen 25. urteurrenaren harira, bereziki salatu nahi izan dute egoera. Horrela beraz, pasa den astean Lizardi kultur elkarteak kideek Zerkausion atera zuten argazki erraldoiaren bide beretik, Herrira-k deitu zuen atzoko manifestazioa: «Pello bahituta dago, Espainiako gobernuaren arabera aske egon behar bailuke». Horrenbestez, Odriozolaren askatasuna lortzea herritarren esku dagoela uste du Herrira-k; «gure esku, herritarren esku dago, Pelloren askatasuna lortzea, eskubide guztietik etxean behar duelako».

Azken ostiraleko aldarriak

Pasa den ostiralean, hileko azken ostiraleroko gisan, hainbat eskara eta salaketa egin zituzten eskualdeko herrietan. Horrela, kondena bete duten preso guztien



Triangulua plazatik abiatu zen Herrira-k deituriko manifestazio jendetsua, atzo iluntzean. I. URKIZU

«berehalako kaleratzea» eskatu zuten batetik, eta «Estrasburgoko sententziak 197/2006 doktrina buruz ebatzitakoari jarraiki, euskal preso politikoentzat bizi osorako zigorra dakarren 197/2006 doktrina etetea».

Mobilizazio hauetan, bildutako jende kopuruaren balantzea egin du Herrira mugimendua: Anoetan 37 lagun elkartu ziren, Lizartzan 45, Villabonan 56, Adunan 7,

Altzon 15, Asteasun 12, Zizurkilan 46, Iruran 15, Tolosan 90, Ibarra 41, Berastegin 29, Berrobin 15, Ikaztegieta 11, Amezketa 13, Leaburu-Txaraman 12, Gaztelun 16, Bidegoianen 5, eta azkenik, Alegian 25.

Zelairaini goraintziak

Tolosaldeko Herrira-k, azkenik, bere poza azaldu du, Peio Zelairain berriro Amasa-Villabonan dela-

ko: «Besarkadarik beroena helarazi nahi diogu Peiori, eta urteotan bere ondoan egon direnei».

Hala ere, «kartzela politika honen eskubide-urratzeak pairatzen dituztenak, oraindik ehunka» direla nabarmenduz, «herriz herri olatu geldiezin bat sortu behar» dela diote: «Espetxeak hutsutzen hasteko unea da, baina horretarako kaleak betetzen segi behar dugu».

Inauterietan balkoiak ikurrinaz apaintzeko deia

Tolosako hainbat herritarrek egin du deia; Amezketa, bihar burutuko dute bigarren herri batzarra

I. Urkizu Tolosa

Inauterietako ohiturei eutsi eta balkoiak apaintzeko deia eginez, koloretako oihalez gain, datozen inauterietan ikurrinak ere balkoi eta leihoetan jartzeko aldarria egin dute hainbat tolosarrek. Honekin batera, Espainiako bandera jartzeko agindua «inposaketa»

dela salatu dute, pasa den larunbatean Triangulua plazan egin dako elkarretaratzean: «Herriko balkoi guztiak ikurrinaz bete behar ditugu, ikurrina geure delako, denon askatasuna delako eta menpekotasuna gainditzeko bidea delako».

Bide onetan, bandera espainiarra udaletxeetan jartzearen aginduarekin «Euskal Herria desagerrarazi nahi dutela» nabarmendu dute, horren aurrean «nortasun ikurren defentsa burutzea euskal herritarrei» dagokielaz auzalduz.

Halaber, banderaren auziak bi ondorio nagusi dakartzala diote,

herritarrek: «Batetik, murrizketak, zein asimilazio politiko, ideologiko eta soziala inposatzen ditu». Gainera, agerraldian, banderaren bitartez, «Euskal Herriaren izatea eta erabakitze esku bidea ere ukatu» egiten direla salatu dute.

«Herri harresia» eraikitzeaz

Espainiako bandera jartzeko aginduaren aurrean, bi jarrera har daitezkeela azaldu dute herritarrek: «bandera jartzea edo ez jartzea». Eta honen harira, duela 28 urte Tolosan bertan piztu zen banderen gerra gogora ekarri nahi izan dute.

«Tolosako Udalak bandera ez jartzea erabaki zuen orduan, eta zinegotziak zigortu zituzten; banderen gerra hasi zen», azaldu dute. Euren ustez, ordea, egungo egoera are okerragoa da, izan ere,



Pasa den larunbatean egin zuten elkarretaratzea, Tolosan. E. MAIZ

«PP alderdiaren estrategia alkatetarako gaitasungabetzea eta legez kanpo uztea» dela diote.

Honen guztiaren aurrean, beraz, «herria mobilizatu eta aktibatu» nahi dute, «herri harresi» bat sortzeko. Inauterietan, beraz, iku-

rrinak jartzeko deiarekin hasi nahi dute herria pizten.

Amezketa herri batzarra

Amezketa ere, pasa den astean egin zuten, bandera espainiarren inguruko lehen herri batzarra: «Parte-hartze zabala izan dugu».

Arduradunek, auzi honek herritarrei interesa piztu diela azpimarratu dute, eta euren iritzia jaso dituzte: bandera non eta nola jarri, besteak beste.

Bihar izango da hurrengo batzarra, 19:00etan, kutur etxeako areto nagusian, eta zehaztasun gehiago adostuko dituzte.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

↓ Iragarki laburrak

ESKUALDATZEA

Taxi zerbitzua. Zizurkilan, taxi lizentzia eta autoa eskualdatzen dira. Interesatuak, deitu 608 575900 telefono zenbakira.

SALGAU EDO ALOKAIRUAN

Ileapaindegia. Villabonan, ileapaindegia saldu edo alokatuko nuke. Interesa duen edonork, deizala 630 09 90 92 telefono zenbakira.

‘Perot’ itxi eta 75 langile kaleratu nahi dituztela salatu dute

Zizurkilgo lantegiko langileek manifestazioa egingo dute larunbatean, Tolosako Trianguloatik abiatuta

Asier Imaz Zizurkil

Zizurkilgo Huyck Wangner lantegiko langileek greba mugagabea hasi zuten atzo. Perot izenez ezagunagoa den lantegia, itxi egin nahi dutela salatu zuten, 81etik 75 langile kalean utziz. Bizitzaren ari diren egoera «lotsagarria» dela esan zuten, eta arazoa gizarteratzeko ekimenen artean, larunbatean, Tolosan manifestazioa egingo dute. Trianguloa plazatik 12:00etan irtengo dira.

Huyck Wangner Spain lantegia Xerium multinazionalaren barruan kokatzen da. Papergintza sektorerako oihal metalikoak egiten ditu, eta enpresaren nagusiek Ameriketako Estatu Batuetan eta Alemanian dute egoitza.

Lantegiko zuzendaritzaren asmoak urtarillaren 21ean jakin zituzten langileek, izan ere, egun horretarako Donostiara deitu zituzten. Mikel Zabaleta ELAren ordezkararen esanetan, «egoeraren azalpen labur batzuk eman eta gero, haien abokatuek, 81 langiletik 75 kaleratuak izango dire-

la esan ziguten. Honek, argi eta garbi, lantegiaren itxiera suposatzen du».

Erabaki hau aurrera eramateko, enpresak bi arrazoi nagusi aipatu zituela dio Zabaletak: «Bate-tik, papergintzaren sektoreak eta multinazionalak jasaten ari diren krisia, eta bestetik, Zizurkilgo lantegian dagoen makinaria zaharkituta dagoela».

HWS lantegiak 19 eta 24 milioi euroren artean kokatzen du makinaria berritzeko egin beharko litzatekeen inbertsioa, eta hori «gehiegizkoa» zela azaldu zieten langileen ordezkariei. Mikel Zabaletaren esanetan, batzarrean esandakoaren arabera, Zizurkilgo produkzioa Alemaniara, Italiara eta Austriara eraman nahi dute: «Lantegi hau husteko erabakia, soilik, estrategikoa da; oraindik diru gehiago irabazteko hartutako erabakia da».

«Esan ez dutena»

Zizurkilgo langileak enpresako jabeen ikuspegiarekin ez datoz bat, eta errealtatearen «zati garrrantzitsuak» ez aipatzea leporatzen diete multinazionalaren arduraduneei: «Krisia krisi, lantegiak urtero irabaziaz eman ditu. Besteak beste, 2012a urte oso ona izan zen, eta hemengo langileen kontura diru asko irabazi zuten; produktibitate ratioak ikusita,



Huyck Wangner lantegiko langileak Zizurkil Goiko frontoian, atzo goizean. A.I.

taldeko lantegirik hoberena da Zizurkilgo enpresa, hau da, langile bakoitzeko produkzio gehien duena da».

Makinariaren inguruan, lantegiko jabeek euren arrazoiak ematerakoan, esan ez zutena ondorengo izan zen Mikel Zabaletaren iritziz: «Aldaketa aspalditik aurreikusia zegoen. Egungo makinaria dagoeneko amortizatu dago, eta urte urte, lantegiak emandako irabaziez gain, diru kopuru bat makinaria berritzeko gordetzen joan dira».

Arazoi hauek kontuan hartuta, ELAren ordezkararen esanetan, lantegiko arduradunen erabakia «lotsagarria, onartezina eta mingarria da, eta horren jakitun dira». Horren adibide bezala, azken egunetan lantegian gertatua salatu dute: «Bilera aurretik, produkzio guztia enpresatik aterata eta biltegi batzuetara eraman zuten; behin bilera egin ondoren, enpresako sarreraren segurtasun pribatua jarri zuten, eta enpresara sartzea debekatuta daukagu gaurtik (atzotik) aurrera». Prentsaurrekoa, adibidez, Zizurkil Goiko frontoian eman behar izan zuten atzokoan, lantegiaren aurrean egiten ez baitzieten utzi.

Arazo larri honen aurrean bide jorratuko dituzte langileek. Alde batetik, negoziaketekin jarraitzeko asmoa agertu zuten, behar izanez gero, bide judizialerara joaz. Bestetik, konponbide beharrezkoak ez direla erabakirik, greba mugagabea, larunbateko manifestazioa eta instituzioen inplikazioa bilatuko dituztela aipatu zuten.

Atzomartxan jarri zuten borrokaren helburua zein den argi eta garbi dute Huyck Wangner lantegiko langileek: Lantegia irekita mantentzea, lanpostuen defentsan. Aurrean dute «munstroa» gelditzeko, aldiz, gizarte eragile guztien babesa eta elkartasuna eskatu zuten, «arazo hau ez baita soilik kalean utziko dituzten langileena, beste jende askori eragiten baitio».

Lantegiaren oharra

HWS multinazionalak bere alde-tik, ohar baten bidez, enplegu erregulazio espediente batez hitz egiten du, hori bai, lanpostuak desagertu aurreko urrats bezala, eta enpresa bideragarri egiteko helburuarekin. Makinaria berritzeko inbertsioa, jasanezina izango litzatekeela dio HWSk.

Zizurkilgo Udalaren babesa jaso dute langileek

➔ Joxe Mari Luengo alkatea prentsa agerraldian egon zen atzo, langileen ondoan. Aurrez, udalak bandoa kaleratu zuen Huyck Wangner multinazionalako zuzendaritzaren erabakia salatuz, «kapitalismo basatiaren bidegabekeria erakusten duelako». Langileei, aldiz, elkartasuna azaldu diete udaletik, «behar dutenerako udalaren bitarteko eta laguntza» eskainiz. Zizurkildar guztiei ere dei egiten die, mobilizazioetan parte hartzeko eskatuz: «enplegu duinaren defentsa guztion zeregina delako».



Luengo alkatea, eskuinean. A. IMAZ

Jesusen Bihotza Ikastolako ikasleen emanaldia, gaur

Ibarrako Uzturpe eta Tolosako Hirukide ikastetxeetan ostegunean amaituko dira kultur asteak

A. Imaz

Eskualdeko ikastetxeak kultur asteak ospatzen ari dira. Villabona eta Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastolan, atzo hasi ziren egitaraua dantzan jartzen. Gaur, hilaren 29an, sexu heziketaren inguruko lantegia egingo dute goizean, DBH 3koek, eta arratsaldean, ikasle guztiak Gurea aretoan elkartuko dira, emanaldia eskainitzeko.

Bihar, asteazkena, kirolak izan-



Alurr dantza taldeak emanaldia eskaini zuen Ibarran, ostiralean. HITZA

go dira protagonista goizean, eta 17:30ean, Jokin Zabalak sukaldaritza ikastaroa zuzenduko du Zizurkilgo Urkamendi elkartearen.

Ibarrako Uzturpe Ikastolan eta Tolosako Hirukiden ere kultur as-

tean murgildurik daude. Bata zein bestean, egitasmoari amaiera ostegunean emango diote. Ikastetxe guztietako egitarauak www.tolosaldea.hitza.info helbidean daude.

Bakea eta elkarbizitza sailaren arduradun, Jonan Fernandez

Erredakzioa Tolosa

Eusko Jaurlaritzak, Jonan Fernandez (Tolosa, 1962) Elkarriko koordinatzaile ohia eta Baketik zentroko zuzendaria izendatuko du Bakea eta elkarbizitza sailaren zuzendari, gaur, Gobernu Kontseiluaren bileran.

Orain arte, jaurlaritzako sailetan sakabanatuta zeuden bakegintza, bizikidetzatza, memoria, giza eskubideak eta biktimen arreta. Inigo Urkullu lehendakariaren gobernuak denak sail berean jartzea erabaki du, eta Fernandezi ematea haren kudeaketaren ardura. Jaurlaritzatik azaldu dutenez, bakegintza alorreko ekime-

nari batasun eta koherentzia handiagoa eman nahi diete. Ondorioz, Biktimen Arretarako Bulegoa desagertu egingo da. 2002an sortu zuen Eusko Jaurlaritzak, Juan Jose Ibarretxe lehendakari zela, eta Maixabel Lasa izan da harrezkero arduradun. Duela aste batzuk Lasak jakinarazi zuen utzi egingo zuela.

Jonan Fernandez 1987-1991 artean HBko zinegotzi izan zen Tolosako udaletxean. Ondoren, Lurralde ingurumen elkarte-ko arduradunetako izan zen. Elkarri bake eta elkarbizitza plataformak sortu zuen gero, beste kide batzuekin. Baketik-en duela sei urtetik dago.

ESKOLA TXIKIAK:	
ABALTZISKETA	ELGETA
ADUNA	GABRIA
AIA-ANDATZA	ERROZU
AIZARNAZABAL	IKAZTEGETA
ALBIZTUR	ITSASONDO
ALKIZA	LEZARTEA
ALIZO	OLABERRIA
ANGIOZAR	AGINAGA
BERGONI	ZEJANA
BIDE-GOIAN	ARROA
IGELDO	AIZARNA
ZABIEZA	ZUZURRI
ERREZIL	OKIA.

↓ **Kirol emaitzak****PILOTA****LEHEN MAILAKO BINA KAKO TXAPELKETA**

Ligaxka, 6. jardunaldia	
Jaunarena-Barriola	19
Berasaluze VIII.a-Albisu	22
Bengoetxea VI.a-Beroiz	20
Titin III.a-Merino II.a	22

Hurrengo jardunaldiaOlaizola II.a-Zabala /
Arretxe II.a-Begino

Gonzalez-Zubieta /

Bengoetxea VI.a-Beroiz

Irujo-Zabaleta /

Jaunarena-Barriola

Titin III.a-Merino II.a

Berasaluze VIII.a-Albisu

EUSKAL HERRIKO PILOTA**TXAPELKETA (Aurrera Saiatz)****Kadeteak****Peña-Mendia (AS)** **22**Oberena **2****Jubenilak****Ormazabal (Aurrera Saiatz)** **22**Oberena **2****E. Aburuza (Aurrera Saiatz)** **8**Zugarralde **22****Larrea-Erasun (AS)** **22**Amurrio **11****Labaka-Iruretagoiena (AS)** **22**Erreka **12****Mujika-X. Imaz (A S)** **22**Oberena **13****22 urtetik azpikoak****Elustondo (Aurrera Saiatz)** **9**Oiarpe **22****E. Labaka-I. Labaka (A S)** **22**Añorga **7****Senlorrak****Arratibel (Aurrera Saiatz)** **1**Zugarralde **22****Artola (Aurrera Saiatz)** **13**Lea Ibarra **22****Bixintxo-Galarraga (A S)** **10**Markina **22****Quina-Telletxea (A S)** **5**Adiskide **22****ARETO FUTBOLA****HIRUGARREN MAILA****17. jardunaldia**

Mallabia- Ibarra	6-7
Laskorain-Nogales	5-3
Hirukide-Aurrera V.	8-8

Sailkapena

1. Ibarra	41p
2. Aurrera V.	40p
4. Bilbo	36p
5. Hirukide	31p
6. Santurtzi	28p
7. Soloarte	28p
8. Laskorain	24p
9. Inter Eder	23p
10. Egitza	19p

Hurrengo jardunaldiaNogales-**Hirukide**Gora- **Laskorain**San Jorge- **T. Lakunza**

Ibarra-Soloarte

FUTBOLA**ERREGIONAL OHOREZKOA****19. jardunaldia****Tolosa CF**-Hondarribi **1-1****Sailkapena**

1. Hernani	43p
2. Real Union	40p
3. Oiartzun	38p

9. Tolosa**25p****Hurrengo jardunaldia**Lagun Onak- **Tolosa CF****SASKIBALOA****LEHEN MAILA****15. jardunaldia****Bide Bide-**Leioak Zarautz **86-59****Sailkapena**

1. Seky	12-3
2. Lizuan.com	10-5
3. Atletico Sn Sn	10-5
4. Tabiraco Baque	9-6
8. Bide Bide Donostia	8-7

Hurrengo jardunaldia**Bide Bide**-Servical

Irazu: «Urduritasunaren beldur nintzen, baina ondo atera da»

Zizurkilgo Jon Irazu aizkolariak irabazi du Zumarragako Xabier Zalduren aurkako apustua

Rebeka Calvo Tolosa

Zazpi minutu eta 28 segundoko alde atera zion herenegun, Jon Irazu aizkolariak Xabier Zalduari. Desafioa ez zen nolanahikoa: hamalauna pago enbor moztu behar zituzten, 54 ontzako hamar kanardiko eta 72 ontzako lau oimbiko, eta 12.000 euro zeuden jokoan. Zizurkildarrak 55 minutu eta 12 segundo behar izan zituen, eta zumarragarrek 62 minutu eta 40 segundo. Dirua, hortaz, zizurkilera.

Tolosaldeko aizkolaria gustura zegoen atzo. Egindako lan onarekin arto: «Gustura geratu naiz. Beldurra ere banuen, hala ere, izan ere, apustuko egunean bertan urduritasunak garrantzia handia du, eta honek arazoren bat sortuko ote zidan beldur nintzen». Irazuren lehen apustua izanda emango zuenaren zain zeuden zale asko, eta Tolosako zezen plazan ere nabaritu zen hori, 800 pertsona bildu baitziren apustua ikusteko.

Zalduarentzat ez zen ordea, bere lehen apustua, eta Irazuk hori probestu zuen: «Bere erreferentziak banituen, beste apustuetan ikusi izan dut, eta banekien gutxi gorabehera nola ibiliko zen, tankera hartua nuen, baina hala ere, ateratako alde ateratzerik ez nuen espero». Zalduak ondo ikusi zuela dio aizkolaria, «gero berarekin hitz eginda berea egin zuela esan zidan», gaineratu du.

Irazuk Zubeltzu eta Labaka izan zituen ondoan, eta kolpe le-



Irazuk (eskuinean, urdinez) 7 minutuko alde atera zion Zalduari. J. AMONARRIZ



800 pertsona bildu ziren herenegun, Tolosan, apustua ikusteko. J. AMONARRIZ

hor eta sakonak eman zituen. Apustua irabazita kontentu dago aizkolaria, baina ez duela gehiegi ospatu aitortu du: «Nire jendearekin egon nintzen, sagardo pixka bat edan... eta ezer gutxi gehia-

go. Izango dut denbora aurrerago».

Txapelketa nagusia prestatzen jarraitu behar du, eta egiten ari den denboraldi bikaina borobiltzen.

Bengoetxea-Beroizek 22-20 galdu zuten Titin II.a-Merino II.aren aurka

Pilota partida estua izan zen eta epaileen erabakiek Titin eta Merinoren alde jarri zuten markagailua

R. C. Leitza

Bengoetxea VI.a leitzarrak eta Beroizek haserre bukatu zuten larunbateko partida. Titin III.a eta Merino II.a izan zituzten parean eta epaileek erabaki batzuetan azken hauen alde egin izanak bat baino gehiago haserretu zi-

tuen, markagailua 22-20an utziaz. Titin III.ak hiru pilota eraman zituen bigarren botean, eta berriz jokatu beharreko beste tanto batean, errioxarren alde egin zuten epaileek, eta horrela-ko lehia estuan, erabakigarria izan zen.

Partida Logroñon izan zen, Adarraga pilotalekuan, eta norgehiagokaren lehen zatia hutsa kokoa izan zen, leitzarrak pilatu zituen gehien, hamar, zehazki. Bigarrena aldiz, oso gogorra izan zen. Hutsak pilatuz joan ziren 9-11koa lortu arte. Ondoren etorri zen polemika: Beroizek Merinori

traba egin zion eta tantoa berriz ere jokatzearabaki zuten epaileek, hurrengo tantoan, aldiz, Titinek Bengoetxeari beste hainbeste egin zionean, errioxarren aldeko tantoa agindu zuten.

Titinek pilotak bigarren botean eramaten zituela ikusita urdinen haserrea handituz joan zen, eta urdinak markagailuan aurreratzen ari zirenean, tanto eztabaidagarria iritsi zen. Titinek bigarren botean eraman zuen pilota, eta epaileek ontzat eman zuten. Finalerdietarako bidearen erdia eginda dute leitzarrak eta Beroizek.

Galdu arren, estreinaldi ona egin du Jaunarenak

Barriola herrikidearekin batera aritu da lehen mailan jokatzeko duen lehen partidari; 22-19 galdu zuten

R.C. Leitza

Ostirala egun handia izan zen Leitzako Jon Jaunarena pilotariarentzat. Bigarren mailako txapelketa guztiak irabazita lehen mailan jokatzeko aukera izan zuen bikotea Barriola herrikidearekin osatuz, eta galdu arren,

ondo aritu zen. Berasaluze-Albisuren aurka aritu ziren leitzarrak eta 22-19 galdu zuten.

Hendaian izan zen partida eta Jaunarenak nahiko estreinaldi txukuna egin zuen, nahiz eta egindako huts egiteetako batzuk lehen mailako bere estraineko partidak bat ilundu. Partidan Berasaluze eta Jaunarenaren arteko lehia izan zen nagusi, eta Asegarceko pilotariaren zehaztasuna erabakiorra izan zen.

Jaunarenak datorren asteburuan ere berriz ere Barriolarekin jokatzeko aukera izango du Irujo-Zabaletaren kontrako partidari.

Irudia o Gaztelu**HERRIKOAK OMENDU DITUZTE**

Pasa den astean Gazteluko Josune Gorostidi eta Mikel Belloso kirolariei omenaldi txiki bat egin zieten herrian. Josune Gorostidik bigarren egin zuen Euskal Herriko Lokotx Biltze Txapelketan; eta sokatiran Eskoziako Munduko Txapelketan parte hartu zuen batetik, eta mistoetan irabazle ere izan zen bere taldea, bestetik. Mikel Belloso, aldiz, Euskal Herriko Pilotari Txapelketan, eskuz banakako ohorezko mailako senior mailan azpitxapelduna izan zen. HITZA

Tolosaldeko triatloilariak bikain aritu dira Kantabrian

Neguko Triatloiko Espainiako Txapelketa izan da; Egoitz Zalakain tolosarrak bigarren egin du elite mailan

dik 10 minutura atera ziren adin taldeetako triatletak.

Emaizak

Tolosaldetik 3 triatletek parte hartu zuten: elite mailan Atletico San Sebastian taldeko Egoitz Zalakain tolosarrak bigarren egin zuen, eta adin talde guztien artean lehenengoa Atletico San Sebastianeko Iñaki Zalakain tolosarra izan zen, denbora orokorrean laugarren postua eskuratuta. Ondorioz 30-34 urtekoen taldean Espainiako Txapelketa irabazi zuen. Tolosaldeko Triatloi Taldeko Jose Luis Zabala berrobittarrak 40-44 urteko adin taldean Espainiako Txapela irabazi zuen.

R.C.

Tolosaldeko triatloilariak emaitza bikainak lortu zituzten pasa den larunbatean Kantabriako Reinosa herrian izan zen Neguko Triatloiko Espainiako Txapelketan.

Aurten lehen aldiz bi irteera izan ziren; lehenengoan elite mailakoak hartu zuten parte eta han-

5 eta 3 irabazi dio Laskorain taldeak Zarauzkoari

Sailkapen orokorreko zortzigarren postuan dago areto futbolako Tolosako taldea

nesi leherkor baten jarrera honen eraginez goitik behera gailendu zituzten zarauztarrak lehen hogei minutuetan zehar. Josu Iturralde, Joniko Otxoak eta atezain kanpotarrak bere atean sartutako golekin guztiz zilegizkoa bihurtu zuten aldageletara bidean markagailuak zuen 3-0a. Aldageletatik bueltan ordea otzanago agertu ziren ikastolakoak, akaso kanpotarrak erneago, eta indarrak zeharo orekatu ziren. Horitxoek laugarrena egin bazuten ere, ondoren zarauztarren bi gol iritsi ziren.

Eskerrak, taldeak gehien behar zuenean, Txiki agertu eta bosgarren erabakigarria sareratu zuela. Ez da lehendabiziko aldia gainera. Garaipen garrantzitsu honekin 2013an jokaturiko hiru partidetan laskoraindarrek 4 puntu gehitu dizkiote sailkapenari eta zortzigarren daude orokorrean.

Iñaki Egizabal Tolosa

Azken jardunaldiko Gasteizko porrot zalapartatsua berehalakoa ahazteko xede irmoarekin kantxaratu ziren etxean. Usabalen, larunbatean Laskorain areto futbol taldekoak. Zarauzko Nogales taldea zuten aurkari eta aurpegi biziki ezagunak topatu zituzten parez pare; Urnietan sortu eta Asigarragan ezagutzera eman zen Nogales famatuaren oinordekoaren aurka milagarren derbia jokatu zuten.

Aitorren mutilek amorratzen ekin zioten partidari eta zikloge-

Otaño eta Otaegi aizkolariek garaipen garrantzitsua izan dute**R.C.**

Ibarrak Unai Otañok eta Zizurkilgo Joseba Otaegik Urrezko Aizkorako binakako txapelketan garaipen garrantzitsua izan dute asteburuan.

Mugertza II.a eta Atutxa II.aren aurka aritu zen bikotea, eta bikote bakoitzak sei lan egin behar izan zituen. Mugertzak eta

Atutxak lehen bi probak irabazi zituzten, hau da, lehenengo 45 ontzako enborra kolpe gutxiagotan moztu zuten, eta gero, erlojuaz kontra, bi 45 ontzako ebaki zituen aizkolaria bakoitzak.

Hirugarrenetik garaile

Hirugarren lanetik aurrera hasi ziren Tolosaldeko aizkolaria egogari buelta ematen. Iraupen

proban 20 segundoko aldea ateratzen zieten bizkaitarrei, eta txanda librean, ere irabazi zuten, bi 45 ontzako, bi kana-erdiko eta bi 60 ontzakoak erdibitzen azkarrenak izanda.

Lan guztiak bukatzeko 19 minutu eta 17 segundo behar izan zituzten Otañok eta Otaegik eta besteek, aldiz, 21 minutu eta 32 segundo.

Ibarrak bigarren egin du sokatirako Idiazabalgo hirugarren saioan**R.C.** Ibarra

Idiazabalgo herriko plazako pilotalekuan jokatu zen larunbatean Euskadiko goma gaineko Sokatira Txapelketako gizonen 640 kiloko saioa. 9 talde aritu ziren eta Bizkaiko Abadiño taldea izan zen garaile, Ibarra garaituz. Abadiño eta Ibarrarekin batera Napurak (Ezpeleta, Lapurdi), Zuraide (Lapurdi), Murueta (Bizkaia) eta

Berrioar (Nafarroa) sailkatu ziren otsailaren 9an Durangon (Bizkaia) izango den finalerako.

Abadiñok 9 puntu eskuratu zituen jardunaldiko sailkapen orokorra finkatzeko bi tiraldiak irabazita, eta Ibarrak, aldiz, 8 puntu.

640 kiloko bigarren kanporaketan Idiazabalgoa eta erabakigarria izan zen. Hilaren 19ko lehen saioan, lehen multzoan, Ibarra izan zen garaile 5 puntu eskura-

tuz, eta bigarren multzoan Abadiño, puntu berberak poltsikoratuz. Ibarrak, lehen saio hartan, tiraldi guztiak irabazi zituen.

Bijardunaldiak jakatuta horrela geratu da sailkapen orokorra: Ibarra 18 punturekin, Abadiño 18 punturekin, Napurrak 15 punturekin, Zuraide eta Murueta laugarren postuan bakoitzak 11 puntu eginda eta Berrioar taldea 9 punturekin.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzalea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@hitza.info
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

BESTELAKOAK

■ **Ibarra.** Elkartasun kanpainaren barruan, Saharara bidaltzeko materiala biltzen ari dira. Udaletxean edo kultur etxean utzi beharko dira iraupen luzea duten elikagaiak, norberaren garbiketarako produktuak eta eskola materiala. 08:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralerara bitartean.

■ **Ibarra.** Uzturpe Ikastolako matrikulazio kanpainaren barruan, 18:00etan, *Haurren jolasak: helduen begirada eta lekua hitzaldia*, Albaro Beñaran psikomotrizista eta pedagogoa eskutik izango da, kultur etxean. 0-6 urteko haurren gurasoei zuzendua.

■ **Tolosa.** Hirukide ikastetxeke Giza Eskubideen astearren barruan, *Realidad social de la crisis. Giza eskubideak eta krisia* mahai inguru izango da, herri-tar guztiei zuzendua. Hirukide eskolako areto nagusia izango da, eta Koldo Casla, Arartekoaren gabinete zuzendaria, Pako Garmendia soziologoa eta Deustuko irakaslea eta Caritaseko ordezkaria izango dira hizlariak.

■ **Tolosa.** Hirukide ikastetxeke Giza Eskubideen astearren barruan, aste gutxian zehar, postontzi erraldoia jarrita egongo da Trianguloko plazan. Bi galdera jarri dituzte edozein herritarrek bere proposamenak botatzeko: *zer egin dezakegu krisiaren aurrean? eta zer eskatuko zenieke agintariei?* dira erantzun beharreko galderak.

■ **Amasa-Villabona.** Elkartasun kanpainaren barruan, Amasa-Villabonako udaletxean ere materiala biltzen ari dira Saharara bidaltzeko. Bigarren solairuko ongizate sailera eramane behar dira. Produktuak

08:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralerara, utzi daitezke.

■ **Abaltzisketa.** Abaltzisketan Tolosaldea Sahararekin elkartearako antolatzen duen kanpainarekin egin dute bat. Elkar-teak elikagaiak, norberaren garbiketarako produktuak eta eskolako materiala bildu nahi ditu Saharara bidaltzeko. Produktuak udaletxean utzi behar dira.

■ **Alegia.** Saharara bidaltzeko produktu biketa egiten ari dira; udaletxeko gizarte zerbitzuetan edo San Juan eskolan utzi behar da materiala.

JAIK

■ **Leitza.** Leitzako ihoten azken eguna izango da, gaur.

09:30ean, Erasote auzoko eskeia egingo dute. 11:00etatik 13:00era, puzgarriak eta jokoak frontoian. 14:00etan, Aurrerako bazkideen bazkaria izango da. 16:00etatik 18:00era, puzgarriak eta jokoak izango dira frontoian. 18:30ean, atsaureen kale-jira izango da herriko musika bandak lagundurik. 19:30ean, Dantzadi musika taldea izango da, plazan. 23:30ean, aurtengo ihoteei amaiera emateko, Dantzadi musika taldea izango da plazan.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Olarreaga, 1. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.

■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

HITZA egunkariak urteko kobratze kanpaina hasi du harpidedunen artean

Tolosaldekoek 68 euro eta Leitzaldekoek 46 euro ordainduko dute; udazkenean proiektu berria izango da martxan

Erredakzioa

Urte hasierarekin batera TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak kobratze kanpaina hasi du. Otsailaren 5etik, astearretatik aurrera, ekingo zaio kobratzeari, eta dagoeneko egunkariko harpidedun guztiei honen berri ematen duen gutuna bidali zaie. Datozen egunetan, ordea, faktura jasoko duzue zuen etxeetan.

2013. urtea erronkaz beteriko izango da eskualdeko euskarazko komunikazio sektorearentzat. Izan ere, Galtzaundi aldizkaria, Txolarre irratiak, 28 Kanala telebista eta gure eskualdeko hainbat gizarte eragileekin batera, internet atari sendoa ardatz izango duen euskarri anitzeko komunikazio taldea sortzera goaz.

Tolosaldeko Komunikazio Taldeak, eskualdea osatzen duten 28 herrietako biztanleen behar komunikatiboak aseko ditu. Tolosaldeko eskualdera mugatuko da eta ondorioz, Leitzaldea ez da iritsiko. Proiektu berria, 2013ko udazkenean abiaraziko dugu, eta beraz, ordutik aurrera Leitzaldea eta Aresoko herritarrei egunkaria banatzeaz utzi egingo diegu.

Tolosaldeko harpidedunei 2013ko kuota 68 eurokoa izango



Datozen egunetan faktura iritsiko da etxeetara. I. TERRADILLOS

dela jakinarazi nahi diegu. Esan gabe doa, tokiko euskarazko prentsaren aldeko apustua egingo dugu, zuek guztiak gure ondoan behar zaituzteguna aurrera egingen jarraitzeko.

Tolosaldeko lau komunikabideak elkartzearekin, Nafarroako Areso eta Leitza herriak proiektutik kanpo geratuko dira. Honek, halabeharrez, bi herri hauek albo batera uztea ekarriko du. Honenbestez, eta udazkena bitartean, Leitzako eta Aresoko gure harpidedunentzat, 2013ko urtariletik irailerako kuota 46 eurokoa izango dela jakinarazi nahi diegu.

Bide batez, berriz ere eskertu egin nahi dugu orain arte euska-

razko hedabideen alde egin duzuen hautua.

Behin faktura jasotzean, helbideratuta ez duzuen harpidedunek banketxera joanda edota bulegotik pasata ordaindu ahal izango duzue. Aldiz, helbideratutakoei, otsailaren 5ean bertan kobratuko zaizue.

Gure zerbitzua hobetzeko etengabe dihardugu lanean eta horretarako ezinbestekoa dugu zure laguntza. Besteak beste, oraindik eman ez baduzu, zure atariko giltza gure eskura jarreaz, egunkaria buzoira behar bezala banatzea bermatuko liguke. Horretarako, edo bestelako iradokizunetarako zure eskura jartzen dugu, Bezero-arreta zenbakia: 943 30 43 46.

Agurrak



Urte askoan!
Alaitz Iturrioz Zurriarain
(Abaltzisketa). Zorionak
famiaren partetik!

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**